

# “Elkar babestu lurraldea defendatzeko”

ERRELATORETZA GRAFIKOA

“Gipuzkoako prozesua 2022”



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

lumaltik HERRIAK

# “Elkar babestu lurraldea defendatzeko”

2022ko urtarriletik urrira bitartean, Guatemala, Mexiko eta Honduraseko giza eskubideen, lurraren eta lurraldearen zenbait defendatzailek Euskal Herrira bidaiatu zuten, tokiko mugimendu feministetan eta ekologistetan antolatutako emakumeekin eta Euskal Herriko arrazakeriaren aurkako kolektiboetako emakume migranteekin eta euskal herritarrekin beren borrokak eta esperientziak partekatzeko.

Harreman horiek hainbat eremu, topaketa, mahai-inguru eta jardunaldiren bitartez gauzatu ziren Gipuzkoan. Dosier honetan prozesuan egindako zenbait ikaspen eta hausnarketa biltzen ditugu.

## NORTZUK HARTU DUTE PARTE?



**Isabel Hernández:** Tokiko aktibista, Guatemalako Maia Kitxe herriko kidea, Mujeres Tejiendo Red elkarteko kidea eta elikadura burujabetzaren defendatzailea.



**Jessica Marroquín:** Irakasle maia, Euskal Herrian bizi diren emakume guatemalarren “Mujeres Tejiendo Red” elkarteko kidea.



**Saioa Hernández Castro:** Psikologo eta sexologoa, berdintasun teknikaria, gorputzean eta desiran aditua.



**Nathalie Bejarano:** Sexologian trebatutako psikologoa, aktibista feminista eta arrazakeriaren aurkakoa.



**Michelle Carvajal:** Honduraseko defendatzailea eta feminista, Honduraseko "Somos Muchas" abortua despenalizatzeko plataformako eta "Yo no quiero ser violada" mugimenduko kidea.



**Angie Ross:** Popti herriari lotutako emakume guatemalarra, komunikazio alternatiboaren defendatzailea, Ruda kolektiboan adierazpen askatasuna erabiltzen eta kazetaritza feminista egiten duena.



**Sara Álvarez:** Guatemalako Maia Kitxe herriko gizarte terapeuta. Sendakuntza kolektiboko tailerrak bideratzen ditu arrazakeriaren aurkako ikuspegi dekolonial batetik.



**Beatriz Plaza Escrivà:** Gizarte ikertzaile feminista eta internazionalista. Aktibista sinesmenez eta grinez.



**Lilia Prado:** Lurraren eta emakume indigenen eskubideen defendatzailea. Mexikoko Michoacan estatuko Purepetxa goi-lautadan bizi den Nahuatzen komunitateko kidea.



**Andrea Rosales:** Aktibista feminista, idazlea, giza eskubideen defendatzailea, Honduraseko "Somos Muchas" komunikazio-gune fokalaren kidea.

# GORPUTZAK, NATURA ETA FEMINISMO KOMUNITARIOAK TAILERRA

Maien historiari, erresistentziari, mundu-ikuskerari eta lurrarekin eta lurraldearekin armonian bizitzeko printzipioei buruz hitz egin genuen. Honako hauek dira printzipio horiek:

·**Osagarritasuna:** gizakien eta naturaren artekoa.

·**Elkarrekikotasuna:** pertsonen eta naturaren artekoa.

·**Oreka:** neure buruarekin, besteekin eta ingurunearekin.

## NOLA BERRESKURATU LURRA ETA LURRALDEA?

Autonomia kolektiboaren eta naturarekiko orekaren bitartez.

“Urarekin bat egiten dut, hura badabilelako”.

“Haizearekin bat egiten dut, hura batzuetan iparraldekoa eta beste batzuetan hegoaldekoa baita”.

*Isabel Hernández eta Jessica Marroquínekin, maiatzaren 21ean Azpeitian eta urriaren 20an Mutrikun.*



# SENTIPENAK ETA SEXUALITATEAK TAILERRA

Zure gorputza ezagutzea zuren nortasunaren parte da. Sexualitatea plazerari lotuta dago, baina diskurtso hegemonikoaren plazer sexualaren ikuspegi mugatuaz harago doa.

Sexualitateaz, eguneroko plazeraz eta nork bere burua zaintzeaz gozatzeko beste modu batzuk aurkitu behar ditugu. Honako hau galdetu behar diogu gure buruari:
Zerk eragiten digu gozamena?

Nola maitatuko dut ez badut nire burua sentitzen...

María Adela Palcosen "Surjo" olerkitik.

*"Itxaropenik gabe etorri naiz baina behar dudan hori eman didate".*



*Nathalie Bejarano Castrorekin, maiatzaren 14an Azpeitian eta urriaren 28an Mutrikun*

# BIZITZE ONERAKO AUTOZAINTZAK TAILERRA

*Con Saioa Hernández el 7 de mayo en Azpeitia y 7 de noviembre en Mutriku.*

Gure gorputzaren ahotsa entzuten ikasi, tentsio emozional eta fisikoak askatzeko.

"Haizea bezalakoa da, ez da ikusten baina hostoak mugitzen ditu"

Zer da nire burua zaintzea?

Zer diote nire oinek?

Nola dago nire gorputzaren atal bakoitza?



Atseden hartzea, lo egitea, deskonektatzea, gozatzeko aukera izatea.

Gorputzarekin konektatzeko ariketa fisikoa.

Gure buruarekin dugun elkarrizketa oso garrantzitsua da...





# TOPAKETA FEMINISTA ETA EKOLOGISTA: "GURE GORPUTZAK DEFENDATU BEHARREKO LEHEN LURRALDE GISA"

Lucía Enamorado (Honduraseko Giza Eskubideen defendatzaileen sarea), Lilia de Prado (Nahuatzen komunitatea, Mexiko), Luz Mary Osorio (Antioquiako erakunde indigena, Kolonbia) eta Mery Ann Garling Infantarekin (Txile – EH), ekainaren 8an Donostiako Cristina Enea parkean.

Naturak jakintza ematen digu; gaur gure erroen min historikoak sendatzen ikasi dugu, aldaketaren haziak erein ahal izateko.

Zenbait borroka laguntzen ditugu, lur-lurraldearen alde borrokatzen diren defendatzaileak, hezkuntza publikoa babesten duten lagunak, erabakitzeko eskubidea babesten duten lagunak... Hau da gure leloa: "Bizitzeko defendatu, ondo bizitzeko". *Lucía Enamorado.*

Lurraldea eta erroak babesteko borrokatzea, giza eskubideen aldeko borrokarekin lotuta dago. Ez dugu ahaztu behar gure jatorria ezagutzeak kontziente egiten gaituela.









# DEFENDATZAILEEN MAHAI-INGURUA MUTRIKUKO BHIAN




Zein izan da idatzi behar izan duzun artikulurik txarrena? 😣

Aurten emakumeak **Ruda** kolektiboarekin harremanetan jarri dira laguntza bila? 🙂

Zaila izan zen **Ruda** kolektiboaren hastapena? 😎

Zein izan da lortutako aurrerapausorik handiena **"Somos Muchas"** sortu zenetik? 😊

# NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK: "FEMINISMOAK. LURRALDEAK. GORPUTZAK."

*Angie Ross (Ruda, Guatemala), Sara Álvarez (Sendatzaile komunitarioa, Guatemala), Beatriz Plaza (Defendatzaile komunitarioa), Lilia Prado (Nahuatzen komunitatea, Mexiko), Andrea Rosales (Somos Muchas, Honduras), Michelle Carvajal (Defendatzaile komunitarioa), urriaren 11n Debako "Ispiluen Gelan".*

## FEMINISMOAK

**ANGIE ROSS,** komunikatzaile gisa emakumeen sendakuntza prozesuak bistaratzearen garrantziaz hitz egin zigun, ez soilik biktimizaziotik baizik eta erresilientziatik ere.

**SARA ÁLVAREZEK,** adiskidetasun sareak sortzearen garrantzia azpimarratu zuen, guztiok behar baititugu gure bizitzaren esparru bakoit zean.

"Kolektibitatea gizarteak gu izatea nahi duen horren zapalkuntza ezabatzeko bide gisa."

Bizitza paradigmak falta zaizkigu. Beste paradigma bat eraiki behar dugu leku guztietan. Hitz egitea eta entzutea, besteekin hitz egitea; mingarria izan daiteke, baina beharrezkoa ere.



## LURRALDEAK

**BEATRIZ PLAZAK,** Beatriz Plazak trantsizio ekosozialari buruz hitz egin zigun tokiko lurraldearen esplotazioari dagokionez.

“Baliabideen pribatizaziorik ez, kapitalismo berantiar hau ezin da sostengatu eta mantendu”.

**LILIA PRADO,** Sendakuntza premia bezala ulertu. “Lehen ez genuen horri buruz pentsatzen. Altxatzen gara ezin dugulako arpilatzea gehiago jasan”.

“Borrokatzen gara ura kentzen digutelako, ahuakatearen hazkuntza intentsiboarako”.

## GORPUTZAK

**ANDREA ROSALESEK,** honako galdera hau egiten digu: Baginak emakume egiten gaitu? Emakumea ez da bagina soilik, askoz gehiago da.

“Gure komunitateak bistaratzea eta ahotsa ematea”.

Historiaren zati handienean, “Anonimo” emakumea zen *(Virginia Woolf)*

**MICHELLE CARVAJALEK,** esan zigun elkarrizketak bizitza eramateko modu berriak topatzen laguntzen digula.

“Orainari esanahi berri bat ematea, iragana sendatu bitartez”.













**Koordinazioa:** Lumaltik Herriak
(Juana Canga · Idily Mérida · Cristina Plaza)
**Argazkiak:** Marina Gallardo
**Diseinu grafikoa eta ilustrazioak:** Karin Hernández

WWW.DEFENSORAS.ORG